

ataria

Orekariak

Komunikabideak

*Alberto Barandiaran:
«Erakunde publikoek
konpromisoa hartu behar
dute, mahai gainean beste
baldintza batzuk jartzeko»*

2017-12-22

791. zenbakia

107.6 fm

www.ataria.eus



EUSKO LABELA DUEN ABELGORRIA

HARAKIN MAISUAK

**BASQUE
LABEL
HARATEGIAK**

— %100 —
GURE BASERRITARREKIN
CON NUESTROS BASERRITARRAS



EUSKO LABEL PRODUKTUTAN
ESPEZIALIZATAKO TOKIA
ESTABLECIMIENTO ESPECIALIZADO
EN PRODUCTOS CON EUSKO LABEL

ZURE BASQUE LABEL HARATEGIA

TOLOSA:

J. L. MUÑAGORRI HARATEGIA - Gorosabel, 5



Rewind

Egun bat hegan pasatzen da, azkar. Eta zenbat geratzen zaizkigu? Eskukada bat agian, edo gehiago. 85 bat urte bizitzera iristen bagara 29.600 bakarrik ditugu bizitzan. Orain da ispilu aurrean jartzen garenean, irribarreek eragindako zimurrak bilatzen hasten garene-

an, gure oroitzapenak ea guk nahi ditugun bezalakoak diren pentsatzen dugunean.

Bat-batean iristen da: Kafe deskafeinatu bat astelehen batean, hankak lurrean jartzea besterik behar ez duzunean.

Ez dauka presarik, beranduegi den arte. Derrepentean, marrazten ari zinen zuzena korapilatzen zaizu. Aurreikusi gabe. Eta hala aurreikusi ahal izan gabe. Beti ez daudelako gris eskalak, ezta kafe epelak ere. Pum. Bizitza une batetik bestera alda daiteke. Eta oraindik ez gara konturatu. Baina denbora ez da inoiz isiltzen.

Adierazteak beldur eman ohi digu baina, baimena daukagu batzuetan triste sentitzeko. Egun



IRENE ARIN

ATARIA IRRATIA 107.6 FM

hartan, pentsakor gelditu nintzen: agian ez daude hemen, baina betirako izan daitezke, oraindik sentitzen badituzu. Oraindik goxo sentiarazten bazaituzte.

Nahi dugunaren eta daukagunaren arteko talkaz aritzen gara: ez daukaguna nahi izan ohi dugu. Baina zer gertatzen da daukaguna nahi ez dugunean?

Atzera bueltarik ez da existitzen normalean: ez rewind, ez pause, ezta stopik ere bizitzan. Eta gertatutakoak zure esku ez daudenean oraindik eta ulergaitzagoak egiten dira: zein zaila den gogorik eta indarririk handienak jarrita ere beste irtenbiderik ez dagoela jabetzea.

Eta faltan botatzea zer den.

Atzo goizean Anttunek irratian esandakoa hartu dut: maitasun edo adeitasun frogara modura aldamenekoari ematen diozuna da oparia. Inoiz baino seguruago diot: oparitu denbora. Berreskuratu ezin den gauza bakarra baita.

Eman *play* oroitzapenei, ez utzi ezer zorretan eta hartu kafe hori hala agindu zenion lagun edo senitartekoa-ekin. Konpondu mundua hizketaldi batean hala sentitzen baduzu. Gehiago bizi, eta gutxiago itxaron. Ez dago beranduegi bat baino okerragorik. Minutuak inbertitu, eta bueltan irribarreak jasotzen hasi. Horrek bai ez duela inoiz alde egiten.

Pote txiki-txikietan gordeta dauzkagun hamar mila milioi momentuak ez dizkigu inork inoiz lapurtuko, izeba.

Nahi dugunaren eta daukagunaren arteko talkaz aritzen gara: ez daukaguna nahi izan ohi dugu. Baina zer gertatzen da daukaguna nahi ez dugunean?

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **KOORDINATZAILEA:** Naiara Roldan de Aranguiz
KUDEATZAILEA: Iban Urdapilleta Alkizatele **TELEFONOA:** 943 655695 **WEBGUNEA:** www.ataria.eus
POSTA ELEKTRONIKOA: ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 · 687 4100 33 · 107.6 FM **PUBLIZITATEA:** 661678818 · publi@ataria.eus

ATARIK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA, SM-KO KIDEAK:

BERTAKO
HEDEABIDEAK



galtzaundi

berria

Txakirre

Tolosaldeko gizeak eragileak



URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €

TOLOSALDEKO ATARIA DIRUZ LAGUNTZEN DUTENERAKUNDEAK:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Alizo, Amezketeta, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil



Gipuzkoako Foru Aldundia



Azaleko irudia:
Olatz Artola



Datorren abenduaren 27an onartuko ditu aurrekontuak, Tolosako Udalak. I. URKIZU

2018a marrazteko proposamena

04

EH Bilduk aurrekontu proposamena plazaratu du, «udalaren egunerokoa islatzen duten aurrekontuak osatzeko»

Itzea Urkizu Arsuaga

Urte amaierak hurrengoaren hasiera antolatzea eskatzen du, eta udalek aurrekontuak prestatzen dihardute, egunotan, buru-belarri. Tolosako Udalak datorren abenduaren 27an onartuko du 2018ari begirako antolakuntza ekonomikoa eta, hitzorduaren aurretik, oposizioko alderdi nagusiak bere proposamen propioa plazaratu du: «Aurrekontuak udalaren eguneroko errealitatea islatu behar du».

Udal taldearen iritziz, beren iritzia aintzat hartu beharko luke udal gobernuak, «udalbatzan pisua duen alderdia» direla iritzita: «Hala ere, nahiz eta gure proposamena onartu, badakigu aurrekontuak ez direla guk egingo genituzkeenak izango. Ez diote eztabaidari lekuri uzten». Datorren asteazkenean, 20:00etan hasiko da hurren-

go urteko bide-orria zehazteko aurrekontuen bilkura.

Bide horretan, berebiziko garrantzia eman diote enplegu programak dakartzan sarrera eta gastua (280.000 euro), nahiz udaleko langileen soldata igoera (%1,5) aurrekontuan txertatzeari: «Zilegi da hori kreditu aldaketa eta kreditu gehikuntzen bitartez egitea baina, horrela funtzionatuz gero, aurrekontuak ez du errealitatea islatzen, eta nolabaiteko desoreka sortzen du».

Behin proposamen hori eginda, oposizioak zenbait konpromiso hartu nahi ditu, 2018an barrena egin beharreko esku-hartzeak aurrikusteko.

Sei konpromiso zehatz

Batetik, San Esteban auzoa berritzeko egutegi bat zehaztu nahi du EH Bilduk: «Ezin da gehiago itxaron eta, azterketa bat egin eta gero, 2018ko maiatzean auzoa eraberritzen hasi beharko litzatekeela uste dugu», azaldu du Lore Agirrek.

Era berean, Olarrain auzoan biribilgune bat egitea proposatu dute, Azpeitira joateko bidegurutzean. Azaldu

dute udalak ez duela lan horien gaineko eskumenik, «baina egoera kudeaketu dezake, 2019an Gipuzkoako Foru Aldundia biribilgune hori egiten has dadin». Herriko sarrera nagusietako bat den aldetik, Tolosako Udalak sarbidea apaindu eta oinezkoen ziurtasuna bermatzeko esku-hartzea egin beharko lukeela uste du EH Bilduk, aurrekontuan horretara 60.000 euro bideratuz.

Etxebizitza politikei begira ere jarri da oposizioa, 2015ean beraiek abiarazitako alokairu esleipenaren programa gogora ekarriz; berriro martxan jartzea galdegin dute, 42.000 euroko diru poltsa baliatuz. Gero, bi ikerketa egiteko beharra ikusten dute: Tolosako etxebizitza hutsen egoerari buruzko azterketa (60.000 euro) eta benetako etxebizitza beharrak ezagutu ahal izateko ikerketa (18.000 euro).

Era berean, erdiguneko tren geltokian –Apeaderoan– obrak egitea

Elosgi parkea herritarren erabilerrako egokitzea proposatu dute, 100.000 euro horretara bideratu

Letxuga eta Solana kaleen arteko pasabidea ireki, eta Txokolate museoa Iturrizara mugitzea iradoki dute

«ezinbestekotzat» jo du oposizioko alderdiak: «Dagokionarekin hitz egin beharra dagoela uste dugu eta, beharko balitz, Tolosako Udalak inbertsioa aurreratzeari».

2018aren atarian, EH Bildu Usabal kiroldegian egitekoak diren hirugarren faseari begira ere jarri da. Horrela, oposizioko udal taldeak uste du, parte hartze prozesu bat jarri beharko litzatekeela martxan, «Tolosak eta Tolosaldeak dituzten kirol-beharrak ezagutu, eta horiei erantzuteko instalakuntzak sortzeko».

Azkenik, Alde Zaharreko RC2 gunea –Laborde-Labaien– berritzeko premiari ere lehentasuna eman nahi diote, eta horretarako diru-poltsa bat zehaztea proposatu dute.

Inbertsioak, azpiegiturei begira

Hiru inbertsio-bide proposatu ditu, EH Bilduk, 2018. urterako. Elosgi parkeko desjabetzea ordainduta, «parkea herriarena» dela azpimarratu dute: «Egoki deritzogu, parkea herritarren-

tzat egokitzeko 100.000 euro bideratzeari; horrela, espazioa ireki eta erabili ahal izango dugu tolosarrok».

Bide beretik, Uzturpe pilotalekuko teilatua konpontzeko beharraz ohartarazi dute, eta 60.000 euroko diru poltsa bideratuko lukete horretara.

Azkenik, Tolosako Udalak 2017an abiarazitako eraikin publikoen azterketari zukua ateratzea proposatu du EH Bilduk: «Emaizak segituan izango ditugu esku artean eta, beraz, azterketak emandakoaren gainean inbertsioak egin behar dira.

Zahar-berritzeen bidean, Letxuga eta Solana kaleen arteko pasabidea irekitzeko helburuz, Txokolatearen museoa Iturriza jauregira lekualdatu liteke, oposizioaren iritziz. Guadalupeko Sebedenea eraikinean, berriz, musika taldeen entsegu lokalak egokituko lituzte oposizioak. Halaber, kultur etxea eraberritzeko premian dagoela azaldu dute, eta turismo bulegoa ere leku-aldatuko lukete: «Gero eta turismo datu hobeak ditugu, baina erreferentzia gune bat beharrezko ikusten dugu, hobetzen jarraitzeko».

Nazioa, euskara eta gizartea

Tolosako egunerokoari hertsiki loturiko diru poltsak eta inbertsioak aurreikustearekin batera, Tolosako EH Bilduk beste hiru helburutara aurrekontua bideratzea ere proposatu dio udal gobernuari: Udalbiltzari 15.000 euroko ekarpena egitea, merkataritza eskalduntzeko Erosi Euskaraz kanpainara 12.000 euro bideratzea eta, azkenik, landa auzoetara gizarte zerbitzuak zabaltzeko 30.000 euro baliatzea.

Autobus zerbitzuko aldaketak salatzeke, eskuorriak etxez etxe

Amasa-Villabonako, Irurako eta Tolosako udal ordezkariak agerraldi bateratua eskaini dute, beren asmoa iragartzeko

I. Urkizu

Azken osoko bilkuretan hizpide izan da gaia eta, eskualdean, EAJk eta EH Bilduk bat egin dute, Gipuzkoako Foru Aldundiak hartutako erabakiaren aurka, alegazioak aurkezteko. Orain, EH Bilduk bere kanpaina propioari ekin dio eta, urte amaierara bitarte, esku orriak banatuko dituzte, etxez etxe, aldundiak zehaztutako aldaketaren berri emanez.

Tolosako udaletxeko pleno aretoan agerraldia egin dute Tolosako, Irurako eta Amasa-Villabonako EH Bilduko zenbait ordezkariak. Horrela, Lore Agirrek, Joxi Imazek eta Xabar Labordek salatu dute, «GFAk zerbitzua murrizteko asmoa» duela, «bidaia gutxituz eta maiztasunak jaitsiz». Ohartarazi dute, aldaketak Buruntzaldea eskualdeko hainbat herriri ere eragingo diela eta, ondorioz, GFAk egindako lehiaketa deialdiak 4.000 alegaziotik gora jaso dituela, udal, elkarte zein norbanakoak kontuan hartuta.

Izan ere, aldundiak zerbitzua esleitzeko proposatutako aldaketak martxan jarriko balira, Tolosatik Donostiarako linean aldaketa nabarmenak egingo li-

tuzkete. Batetik, maiztasunari dagozkionak: autobusak 30 minutuz behin izatetik, ordubetean behin izango lirateke. Hori martxan jarritz gero, egunean 36 autobus izatetik 18 izatera jaitsiko litzateke zifra. Gainera, ospitaleetako lotura 7 zerbitzutik 3ra jaitsiko litzateke: «Autobus zerbitzuan egin nahi dituzten murrizketak erabat onartezinak dira, herritarrok merezi dugulako kalitatezko garraio publiko eraginkorra».

Agerraldian harridura ere azaldu dute, gainera: «Ez dugu erabakia ulertzen, urtean zehar milaka herritarrek erabiltzen duten zerbitzua delako, eta erabilera gora doalako». Hiru udal ordezkariak «irizpide erabat ekonomizista» ikusten dute autobus zerbitzu kopurua jaistearren atzean: «Arrazoiak ez dira pisuzkoak».

Bertan behera uztea, jomugan

Eskualdeko zenbait plenotan EAJrekin batera salatu bezala, EH Bilduk gaitzespena berretsi du, azpimarratuz, «foru gobernuak bizkarra emanda osatu duela murrizketen aurreproiektua».

Horregatik, EH Bilduk eskaera zuzena egin nahi dio GFARI: zerbitzuaren esleipena bertan behera uztea. Hori gauzatuko balute, gainera, parte hartze prozesu bat martxan jartzea nahi dute, «Tolosaldea lehen mailako autobus zerbitzua merezi du».

Hilberriak eta urteurrenak

atarian jarrita
Goierriko eta Urola Kostako
Hitzetan **DOAN**
hilberriak
urteurrenak
eskertzak

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu
Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu



Ma ROSARIO IZTUETA MAIZ



Abenduaren 20an hil zen, 62 urte zituela,

-Goian Bego-

*Laster arte ezpainetan
utzi gaituzu penetan,
orain gure ametsetan
bizirik zaude benetan,
zeruko izarretan
eta gure bihotzetan.*

ZURE SENIDEAK ETA ILOBAK

Haren arimaren alde otoitz bat eskatzen dizuegu eta arren etor zaitezte, OSTIRALEAN arratsaldeko **SEI ETA ERDIETAN**, Abaltzisketako **SAN JOAN BATAIATZAILEA** parroki elizan, izango den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.
ABALTZISKETAN, 2017ko abenduaren 21ean



IRENE CAMINOS, KIROLARI ONENA

2016 eta 2017ko kirolari aipagarrienak saritu dituzte Tolosako Kirol Galan. Maria Lasak etorkizuneko kirolari aipagarrienarena lortu du. Kirolarien garaipenak ez ezik, udalak errekonozitu ditu kirolaren beste baloreak sustatzen dituzten pertsona zein eragileak.



Christian Fernandez Kirol zinegotzia, Irene Caminos eta Olatz Peon alkatea, sari banaketan. I.G.L.

Imanol García Landa Tolosa

Azken bi urteetan lorpen aipagarrienak egin dituzten kirolariak errekonozitu ditu Tolosako Udalak Leidor aretoan egindako Kirol Galan. Irene Caminos bike trialeko kirolariak

lortu du kirolari onenaren saria, eta Maria Lasa atleta izan da etorkizuneko kirolari aipagarrienaren saria jaso duena.

Irene Caminosek ez zuen espero saria eskuratzea: «Kirolari asko daude Tolosan, eta oso onak, eta hau irabaztea ez nuen espero». Bidaia asko egin

behar izaten ditu txapelketetan lehiatzeko Caminosek: «Hasieran eta une txarretan beti pentsatzen duzun gauza bat da, honak guztiak merezi ote duen. Baina, azkenean, denboraldia bukatzerakoan edo horrelako sari bat jasotzerakoan ikusten duzu

baietz, merezi duela». Babesleei esker eman dizkie bere kirol ibilbidea egin ahal izateko ematen dioten laguntzarengatik.

Orain bi urte hasi ziren Tolosako trial eskolarekin eta aurten Oriako Txirrindulari Eskolak dezente lagundu diela-eta, beraiei eskaini die txapela. Orain dela hilabete itzuli da Txinatik Caminos, bertan brontzezko domina lortu ondoren Munduko Txapelketan. Hilabete egon da atsedena hartzen eta orain hasi da aurrendenboraldia prestatzen.

Bere aldetik, Maria Lasa oso pozik azaldu da etorkizuneko kirolariaren artean jasotako txapelarekin: «Hainbeste lan egin eta gero ikustea horrelako saria jasotzen duzula poztekoa da». Lorpenak izateko egindako esfortzua ere nabarmendu du: «Une batzuk badaude pentsatzen duzuna zertako egiten duzun hau, baina egun txar asko izan ondoren egun on bat izateak asko konpentsatzen du».

Kirolari onena izateko hautagaiak ondorengoak izan dira: txirrindularitzan, Unai Iribar eta Eukene Larrarte; igeriketan, mutilen absolutu taldea; atletismoan, Paula de Juan Razkin; bike trialen, Irene Caminos; judoan, Iurre Iraola; urpeko igeriketan, Irati Lakunza Elizalde eta Aras Karakus San Martin; eta patinajean, Rakel Estibariz.

Ekitaldian, kirolarien lorpenak ez ezik, Tolosako Udalak kirolaren beste baloreak sustatzen dituzten pertsona zein eragileak errekonozitu ditu. Besteak beste, Tolosaldeko Arraun Klubari Berdintasunaren Saria eman zaio, «emakume eta gizonen arteko ezberdintasuna murrizten laguntzeagatik».

ARGAZKIAK

Kirol Galaren argazki galeria ikusteko eta errekonozimendua jaso duten guztien izenak ezagutzeko:

www.ataria.eus/kirola





ALTUNA ETA IRAOLA, UDAZKEN SARIAN GARAILE

Xabat Altunak eta Unai Iraolak (biak Tolosako Beotibar klubekoak) irabazi dute Zesta-puntako Udazken Saria alebinen mailan, eta infantiletan Gonzalo Aguirrek (Zumaia) eta Eneritz Lizardik (Danok Bat) osatutako bikoteak jantzi du txapela. ATARIA

VI. Antton Pebet Memorialeko finalerdiak, bihar jokoan

Erredakzioa Amasa-Villabona

Villabonako Bearzana pilotalekuan jokatu da, bihar, 17:30ean hasita, VI. Antton Pebet Memorialeko finalerdiak. Jaialdiaren sarrera doakoa izango da. Lehen partidari, Urbietan-Aranguren Salaberria eta Garmendiaren aurka ariko dira. Jarraian, Arrieta-Zezeagak Exposito-Telletxea izango dituzte aurkari.

Pasa den asteburuan Arrieta-Zezeagak bikoteak batetik, eta Exposito-Telletxeak bestetik, lortu zituzten larunbateko finalerdietan jokatzeaz azken txartelak. Izerdi ederrak bota zituzten bi bikoteek. Arrieta eta Zezeagak 22-18 irabazi zuten Egiuren tolosarraren eta Lizeaga hernaniarraren aurka. Partida gogorra eta borrokatua jokatu zuten. Exposito eta Telletxeak Olazabal aresorarraren eta Mariezkurrena Iruñekoaren aurka jokatu zuten. Emozioz beteriko partida izan zen hau ere. Emaiza, aurrekoen berdina: 22-18.

Emakumea Pilotari Txapelketako finalak, bihar

Erredakzioa Tolosa

Tolosako Beotibar pilotalekuan Emakumea Pilotari Txapelketako finalak jokatu dira bihar arratsaldean, 17:30ean hasita, gomazko paletan, eta bi mailatan eskualdeko pilotariak izango dira. 2. mailako finalean Mirari Etxegiak eta Itziar Lopetegik (Tolosa CF) osatutako bikoteak Ainhoa Ontsal (alegiarra, Intxurre klubeko) eta Enara Lasarte (Suberri klubeko) bikotea izango du aurkari. Lehen mailakoan Amaia Irazustabarrena eta Mari Murua (altzotarra, Intxurre klubeko) bikoteak Ainhoa Garmendia (alegiarra, Suberri klubeko) eta Miriam Arrillaga (Suberri klubeko) bikotearen aurka ariko dira.

Bihar ere, eta Beotibar frontoian bertan, goiz eta arratsaldean Emakume Pilotari Herrikoien Paleta Txapelketa Azkarra izango da jokoan. Parte hartzaileek elkarrekin egingo dute bazkaria.

Frontenis Txapelketa hobetzea helburu

Berrobi. Antolatzaileak pozik dau-de aurtengo Jon Ander Izagirre Frontenis Txapelketak emandakoarekin, baina aurrera begira hobetzeko asmoz, inkesta bat abiarazi dute. Inkesta bete nahi dutenek ibinkirolkluba@gmail.com helbidera idatzi behar dute. «Parte hartzaile kopuruarekin eta txapelketak emandakoarekin pozik gaude, baina beti dago hobetzeko tarte. Partaideak ere gustura aritu dira», esan dute. «Nesketan jende berriak eman du izena aurtengo eta oso berri ona da, baina aurrera begira ere jende gehiago animatzea nahi dugu. Baita beste modalitateetan ere, denentzat dago atea zabalik».

XV. Paco Sanchez Saria jokatu da Usabalen

Tolosa. Tolosako Usabal Kiroldegian XV. Paco Sanchez Saria jokatu da bihar. Eskolarteko mailako igerilari benjamin eta alebinez parte hartu dute. Zarautz, Easo, Fortuna, Izarraitz eta Tolosaldea taldeetako 250 bat igerilari ariko dira, 15:30etik hasita.

24 orduko areto futbol txapelketa hilaren 29an

Tolosa. Tolosako Euskal Eskola Publikoak II. TEEP 24 Orduko Aretoko Futbol Txapelketa antolatu du. Abenduaren 29an 19:30ean hasiko da, eta aurtengo berrikuntza emakumeen txapelketa da. Emakumeen txapelketa 4x4koa izango da, eta Orixeko gimnasioan jokatu da. Talde bakoitzean gehienez 8 jokalarik eman dezakete izena, eta taldeko 40 euro ordainduko dira. Mutilen txapelketa Uzturpe frontoian izango da, 5x5 formatuan. Gehienez 10 jokalarik izena eman dezakete talde bakoitzeko eta 60 euro ordaindu behar da taldeko. Izena teep.kirolkluba@gmail.com helbidean eman behar da eta gaur da azken eguna. Lehen saria Astesuarra tabernan afaria eta bigarrena Joxe Mari Barriola harategiaren saski ederra izango dira. Julian jattetxean afaria zozkatuko da txapelketa bakoitzean.



Proiektuarekin bat egin duten Tolosaldeko 12 herrietako ordezkariak, Tolomendi eta administrazioetako kideekin batera, Topic-en. R. Calvo

08 Elikaduraren bidez eragiteko

Tolosaldeko 12 herri-
'Jan Tolosaldea'-rekin egin
dute bat eta hortik abiatuta,
'Nirea' programara atxiki dira

Jan Tolosaldea ekimenak hainbat lan ildo ditu, eta horietako bat da ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko ezagutza bultzatzearena. Bertan ekointzitateko produktuak kontsumitzeak ekoizleei egiten baitie mesede, noski, baita eskualde osoari ere; bertako ekonomia, ekoizpena, ingurugiroa... bultzatzen baitu.

Tolomendiren Jan Tolosaldea ez da ekimen berria, baina urrats garrantzitsua eman du eta mugarrira jarri du; eskualdeko 12 herriekin dute bat ekimenarekin. Amasa-Villabona, Abaltzisketa, Alegia, Asteasu, Anoeta, Aduna, Berrobi, Berastegi, Tolosa, Ibarra, Orea eta Zizurkil dira herri horiek, eta pasa den astean bildu ziren Tolosako Topic zentroko areto nagusian, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren ordezkariarekin batera. Izan ere, Jan Tolosaldea-tik abiatuta Eusko Jaurlaritzaren Nirea akordioa-

rekin ere egin dute bat. Jan Tolosaldea-k, era berean, Tolosaldeko Elikadura Onaren Plangintza osatzen du.

Hau guztiaren berri emateko ekitaldian elikadura jasangarria izan zuten hizketagai hainbat ikuspuntutatik. Han bildu ziren aipatu herrietako udal ordezkariak, Tolomendiko kideak eta baita Iñaki Labaka Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Oreakarako zuzendaria eta Bittor Oroz Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako sailburuordea ere. Guztiek nabarmendu zuten lehen sektoreak duen garrantzia eta guztiek elkarlana aipatu zuten. Eta hain justu, ekitaldia izan zen elkarlan horren lehen pausoa. «Bertakoa jatea ezinbestekoa da eta horretara heltzeko neurriak hartu behar dira, neurri zehatzak, horretan gaude gaur, neurriak zehaztu eta eragileen arteko elkarlana sustatzen», esan zuen Olatz Peon Tolosako alkatea.

Tolomendiri dagokionez, Iker Karrera arduradunak, 12 udalerrien konpromisoa nabarmendu zuen. «Lehen sektorea bultzatzeko eragitea ezinbes-

tekoa da eta Jan Tolosaldea zein Nirea beharrezkoak dira bide horretan», esan zuen. Konpromisoak egunerokotasuneko ekintzekin gauzatzen direla ere esan zuen. «Landa eremua eta hiria lotuta daude eta Tolomenditik 12 udalerriekin ekintza zehatzen bidez eragin nahi dugu», gaineratu zuen. Tolomendiren helburua, dena den, proiektua herri gehiagotara zabaltzea dela esan zuen.

Elkarlana eta konpromisoa ez ziren izan bertan aipatutako ideia bakarrik, oreka, jasangarritasuna eta kalitateko produktuak ekoitzi beharraz ere hitz egin zuten. Zentzu horretan Iñaki Labakak bezeroei kalitateko produktuak eskaini beharraz aritu zen. «Aldundiaren zeregina da horretan eragitea», esan zuen. «Jan Tolosaldea tokian tokikoa kontsumitzeko abiapuntua izan daiteke».

Bittor Orozek berriz, Nirea-ren berri eman zuen eta gogoratu garrantzitsua dela gizarteari azaltzea zergatik den ezinbestekoa lehen sektorea herri txikitatetik indartzea. «Kalitatea, paisaia, identitatea eta bioaniztasuna gorde-

tzen laguntzen du», esan zuen. «Ezin dugu ahaztu landa eremuak eta lehen sektoreak zer ematen dion gizarteari», gaineratu zuen.

'Nirea'

Nirea akordioa 2014. urtean abiarazi zuen Eusko Jaurlaritzak, HAZIrekin elkarlanean. Helburua Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko herritarrak landa nahiz itsasertzeko ingurunearen garapen iraunkorarekin duen konpromisoa sustatzea izan zen eta da. Garapen elkarteak dira akordioaren sustatzai-leak eta hortik abiatuta, abiarazi zuen Tolomendik *Jan Tolosaldea* proiektua. Eskualdeko Elikadura Onaren Plangintza osatzeko helburuz abiarazi zuen proiektua eta garapen etengabea izatea du helburu. Nolabaiteko aterki bat izan nahi du, eskualdeak gai hauek ikuspegi bateratu eta koordinatu batean garatzeko.

Jan Tolosaldea proiektu anbizioa da, berebiziko garrantzia duena eskualdean eta hor barnebiltzen ditu Tolomendik bere egiten dituen hainbat betebeharrak: elikadura babesteko landa ingurunea babestea, eskualdeko elikadura sistema eraldatzeko saiakera irmoa, ekoizleentzat merkatuak gehitzea, elikadura parte diren eragile ezberdinen arteko elkarlana, bertako elikagaien sustapena eta euskal kulturaren zati den elikadura aniztasuna babestea.

Dokumentala

Lehen aurkezpena eginda ekitaldiak dokumental baten emanaldiarekin jarraitu zuen. Bertan bildutakoek *Sus-*

tainable Eating ikusteko aukera izan zuten. Espainiako Dietista-Nutrizionisten fundazioak elikadura, kontsumo ohitura eta ekoizpen moduen inguruko hausnarketara bultzatzea helburu duen dokumentala da.

Hori bukatuta mahai ingurua ere izan zen eta bertan Jan Tolosaldea bezalako ekimenek izan lezaketen eraginarekin inguruan aritu ziren besteak beste, Aitor Usabiaga Asteasuko zinegotzia eta abeltzaina, Arantxa Garai-buru Larte Gaztandegiko eta Lasarbi Elkarteko lehendakaria, Giuseppe Rusolillo Espainiako Dietista eta Nutri-

zionisten Elkargoko lehendakaria, Asier Arrese HAZIko zuzendaria eta Iñaki Labaka bera.

Mahai inguruan dokumentalaren egileak, Rusolillok, lana «probokatzailerak» dela onartu zuen eta elikaduran ingurunearen kontzeptua zaindu beharraz hitz egin zuen.

«Elikadura orekatua behar dugu, eta batez ere, bertako produktuak kontsumitu behar ditugu, horrek inguruari mesede egiteaz gain, ekoizleei, ingurugiroari... egiten baitio mesede, gure osasunean ere badu eragina, noski», esan zuen.



Ekimenaren berri eman zuen Tolomendiko arduradunak. R. Calvo



Tolosak hirugarrenez hartu du Energia Azoka. ITZEA URKIZU

Tolosaldea Pizten

Tolosaldea Garatzenek, PIZTU Tolosaldea Energia Planarekin neurriak hartzeko bidea ireki du eta aurren, azterketa eta diagnostikoetan jarri ditu bere indarrak

Tolosan pasa den astean ospatu den Energia Azokan ikusi bezala, Tolosaldean energiaren inguruko interesari, beharrei eta gabeziei leihobat irekitzen ari gara eta argia ematen saiatzen ari gara, orain arte iluntasunean mantendu diren energiari lotutako arazoei. Izan ere, dependentzia eta xahutze energetikoa arazo larri bihurtu daitezke, epe ertain eta luzean, neurri zehatzak eta zuzenak jartzen ez baditugu guztion artean.

Tolosaldea Garatzenek, PIZTU Tolosaldea Energia Planarekin neurriak hartzeko bidea ireki du eta aurren, azterketa eta diagnostikoetan jarri ditu bere indarrak. Turismo sektorean efizientzia energetikoaren inguruko hobekuntza plana landu du, horretarako eskualdeko establezimenduetan azterketa energetikoak sustatuz. Eta merkataritza sektorean, Tolargirekin harremanetan eta haiekin

elkarlanean, Tolosako saltokiei zuzendutako sentsibilizazio tailerra antolatu dugu: Tolargiren energia datuak ezagutzeko tresna nola erabili irakasteko.

Energia berrietagarriei ere keinu egin diegu Tolosaldea Garatzenetik eta bi azterketa sakon landu ditugu: batetik, Tolomendirekin elkarlanean, eskualdeko baso publikoetako biomasaaren potentzialitatearen azterketa egin dugu. Honi lotuta, gure eskualdeko eraikin publikoetan biomasa galdaretan epe motz eta ertainean dagoen eta egon daitekeen demandaren azterketa. Eta bestetik, Tolosaldeko udal eraikinetako eta industriaguneetako pabiloietako gainazalean energia fotovoltaiakoaren potentzialaren azterketa egin dugu. 25 udal eraikinetako gainazalak aztertu dira eta 11 enpresetako gainazalak eta azterketa honen ondorioz, dagoeneko udal batzuk instalazio fotovoltaiakoak eraikitzeko bidean daude.

Baina asko dugu oraindik jakiteko energia arloan. Horrexegatik, PIZTU Tolosaldea kanpainarekin jarraitu dugu aurren, eta horren adibide izan dira sare sozialetan eta zinemetan zabaltu ditugun *energia pilulak* deitu diegun sentsibilizazio bideoak. Tolosako Telleria anaiak, gainera, Tolosaldeko energiaren youtuber bihurtu ditugu, energiaren inguruko aholkuak emanez eta eraginkortasun energetikoaren inguruko gakoak ezagutaraziz. Eta ezinbestekoak izan dira gure udalerrietan Gipuzkoako Foru Aldundiarekin antolatu ditugun ARGITU tailerrak.

Energiaren inguruan leihobak ez ezik atek ere ireki behar direlako, 2018an indar eta argi guztiak jarriko ditugu berriz ere energia berrietagarriei begira eta eraginkortasun energetikoari begira.

Gure bizi kalitatearen eta inguru-nearen aldeko egiteko bide bakarra baita. Argi ibili!



Tolosako Babarruna

GOZA ITZAZU



www.tolosakobabarruna.eus

Tel.: 943 65 02 53

Berezi

NEURRI BEREZIAK

Gazte eta emakumeentzako moda

44-64
neurriak


www.berezitallasespeciales.com

Errementari kalea, 3, Tolosa / Tel.: 943 674 965



Gabon
zoriontsuak
pasa!

[berezitallasespeciales](http://berezitallasespeciales.com) f



Zuretzat, inoiz irakurriko ez baduzu ere

Behar behar, gauza gutxi behar ditugu bizitzan. Nekez egingo dut hemen bizitzako behar material, immaterial edo fisiologikoen zerrenda bat, baina, buxuari buelta pare bat emanez gero, garrantzitsuena zein den bistakoa da. Lagungarri bat eman dizut jada, irakurle. Garrantzitsuena burua bera da edo, hobeto esanda, haren barruan dagoen organo miragarria: garuna.

Garunari esker, mundua eraikitzen dugu. Garunari esker, mundua sentitzen dugu. Zentzumenetatik jasotako informazio guztia garunean prozesatzen da, eta prozesaketa hori gabe, ezinezkoa litzateke ondoan duguna hautamatea. Elkarlotutako hainbat prozesuren emaitza da munduarekiko dugun perzeptzioa eta guztia garunari esker gertatzen da. Senti-

mentuak berak ere garunean sortzen dira. Maitasuna eta gorrotoa, poza eta pena... badute, noski, zati subjektibo eta irrazionala –zientziak azaldu ezin duena–, baina, beste neurri handi batean, garunaren aginduz askatutako konposatu kimikoen ondorioz sentitzen dugu sentitzen duguna.

Garunik gabe ezerk ez dauka zentzua. 85.000 milioi neuronaz osatutako organo hori gabe ez gara ezer. Gu-

aren zati handiena garuneko neuronen arteko loturetan dago. Garuna gurekin batera aldatzen da; izan ere, gure portaeraren eta bizimoduaren arabera, garunaren egitura neuronalak aldatu egiten dira. Modu erraz batean esanez, ekintza jakin bat errepikatzen dugunean, ekintza hori egiteko erabili diren neuronen arteko loturak sendotu egiten dira, kate

sendoagoak osatuz. Katea zenbat eta sendoagoa izan, errazagoa izango da hurrengo batean ekintza bera errepikatzea. Antzera, pentsatzen gaudenean garunean aldaketa fisiologikoak gertatzen dira eta neurona-kateak malguagoak egiten dira –neuroplastikotasuna–.

Garuna egunero berritzen da, eta neurona berriak ekoizten ditugu hil direnak ordezkatzeko –neurogenesis–. Gutxi gorabehera, egunero 1.400 neurona berri ditugu, baina, ekoizpen-abiadura hori mantsotzen doa adinak aurrera egin ahala. Bizitza guztian zehar, dena den, garunak ez du atsedetik hartzen, ezta lo gaudenean ere. Lo gaudenean, estimulu errepikakor mantoak gertatzen dira eta hipokanpoak –memoriarekin lotutako atalak– jarduera guztia erregistratzen du. Gaueko jarduerak neuronon funtzionamendua antolatzeko eta oroimena finkatzeko beharrezkoak dira.

Oroimena, memoria, oroitzapenak... guztiak gordetzen dira garuneko neuronen arteko loturetan. Bizitza guztian zehar, luzea zein laburra izan, bizitako momentuak bertan gordetzen dira. Zer garen eta zer izan garen, zer izan nahi dugun eta zein amets eta ilusio ditugun. Guztia, nerbio-ehunez osaturiko organo miragarri horretan bilduta. Garunik gabe ez gara ezer. Denak hari esker du zentzua eta bertan bakarrik du zentzua munduak. Garunaren kontrola galtzen badugu, bizitza amildegiaren aurrean ate-joka gertatzen da eta gutxi dute amildegiari begiratu eta tinko mantentzeko adorea. Bizia hari fin batek eusten du; bat-batean, ustekabea, apurtu daitekeen hari fin batek. Haria apurtzearen denean, garuneko azken neuronaren azken sinapsiak bihotzari azken taupada emateko agintzen dionean, garrantzitsua izango den bakarra zera izango da: ezagutu ahal izan dugun egoera gozagarri hau, bizitza, beldurrik gabe eta ausardiaz bizitzeko gai izan garen ala ez. Gure bizitzak merezi izan ote duen ala ez. Zureak, ziur baietz.

Maite Lopez izebaren omenez idatzitako artikulua, garun-neoplasia baten ondorioz abenduaren 6an hil zena, 61 urte zituela.



JOSU LOPEZ-GAZPIO
KIMIKAN
DOKTOREA ETA
ZIENTZIA
DIBULGATZAILEA

Puto urakan hau...

Ana» borraska atlantikoaren bihamunean, etxerako bidean, euria zarra-zarra, eta haizea ere harroxo. Aterkiari ondo eutsi beharra zegoen. Ikastolako bilera batetik nentoren eta ikasle batzuk kontrako norabidean, bizikletan eta aterkiari eutsi ezinik haiek ere, «puto urakan honekin nazkatuta», marmarrean.

Erauntsitik babesera bildu orduko, «gazte kontuak, gutxienez euskaraz ari dituk», pentsatu nuen neure artean. Ataritik hurbil, nire adintsuko bat telefonoz hizketan, «bai egin ditut erosketak, ogia, laranjak eta jogurtak, *creo que no me olvidado de nada*». Eta nik lepoa egingo nukeen, baietz, zer edo zer ahaztu zuela. Etxera iristerako beldur nintzen, seme-alabetakoren batek «zer, berandu, no?» galdezka irekiko ote zidan atea. Ez zen halakorik gertatu, baina sumatu izan ditut gurean ere, «en plan euskara moderno horretan» solasean. Eta nik ere zenba-

tetan erabili ote ditut halako maku-luak. «A sako». Isiltzeko hobe a nago, beraz.

Joxe Manuel Odriozolak berriki argitaratutako *Nora goaz euskalduntasun honekin?* liburuan nabarmendutako ideietako bat etorri zitzaidan burura. Nola gure gurasoen euskalduntasuna ahozko kulturari oinarritzen zen eta gaurko euskalduntasuna, berriz, erdal elebidunen gainean eraikia dagoen, eta «erdararen eskale» bihurtu gaituen euskaldunak.

Zubi horretan bizi baikara, orain euskaraz abiatu eta gaztelaniaz segi,

edo alderantziz, «modo erdara batuan», baina irudipena izango da agian, bi hizkuntzetan firin-faran gabiltzanean, gero eta errazago eta maizago ez ote garen gaztelaniara lerratzen. Hain da indartsua urakanaren eragina. Eta gu arnasgune batean bizi garenik, gurean euskarak arnas hartzen duenik, guk euskaraz asko, askotan eta askorekin hitz egin dezakegunik... Altunak eta Sara legik lau t' erdiko finalean kasu.

Urruntzen garenean gure oasi geografiko eta soziolinguistikotatik, hurbiltzen garenean urakanaren begira, orduan ezinak eta erresuminak. Pablito Berasaluze eta Urrutikoetxea elkarren artean gaztelaniaz entzutean, adibidez. Orduan bestelako pentsakizunak eta ahaleginak. Hobe lu-keela gure euskarak gaztelaniako makuluekin, herren eta trakets,

estropezuka eta ezinean, baina oinez bidea egitea, mutu geratzeari baino. Ez dagoela euskara txarragorik, egiten ez dena baino. Izan ere, Odriozolaren arabera, «bi erdarak ditugu benetako nazio hizkuntzak gurean, hauek eratzten eta kohesionatzen dituztelako gizarte nazional hegemonikoaren harreman-sareak; eta euskara, aldiz, komunitate erregional etniko baten mintzabidea da funtsean». Tolosaldea oro har, Durangoko Azoka, BECe-ko finala, «modo ironian» abiatutako idatzia hau irakurtzen ari zareten Galtzaundi-Atarikide guztiak, zer gara

oasi eta komunitate horretako bidaide, gogaide ez besterik.

Ikuspegi eta aldarre kontua ere bada. Oasiko ezkorrenen putzu ilun bat besterik ez dute begietsiko, eta baikorrenen «itsaso urdin eta zabal bat» irudikatuko dute ausaz. Auskalo, hor erdibidean ibiliko gara nonbait, elurretan hegoak kizkurtuta beti haize kontra dabilen euskararen txan-

txangorri. Jakinik seme-alabek D erduan ikasi arren, *Goazen!* ikusi eta *Gaztea* entzun arren, eta guk geuk ere behin eta berriro «ahora» aldarrikatu arren, «puto urakan» isil batek astintzen gaituela une oro komunikabideetatik, Internetetik, gizarte-sareetatik, nonahitik, eta, aterkiari gogor eutsi arren, zirrikitu guztietatik sartzen zai-gula erdara. Eta gu, batzuetan, korrontea ibili arren, leihoak irekitzen ere aritzen gara.



RAMON OLASAGASTI
AIESTARAN
 KAZETARIA ETA
 IRAKASLEA

Etxera iristerako beldur nintzen, seme-alabetakoren batek «zer, berandu, no?» galdezka irekiko ote zidan atea. Ez zen halakorik gertatu, baina sumatu izan ditut gurean ere, «en plan euskara moderno horretan» solasean



GORPUTZ MUGIMENDUEI

KATEATUTA; KATEAN, ASKE

Doinu baten erritmora mugitzen dute gorputza. Mugimendu bat bestearen atzetik. Hori da, soiltasunean, dantza; gorputz-higidura kateatuen segida. Baina dantzaren katean aske sentitzen dira eskualdeko bi dantzariak. Dantzak barrua askatzeko balio die, sentitzeko, sentiarazteko.

Olatz Artola

Bakoitzaren nortasunean eragina du jaioterriak, bizilekuak. Nongo *-tarra* izateak *-tasun* asko ditu berarekin. Baina Nortasun Agiri Nazionalek ez dute beti egia esaten, ez behintzat Katixa Perea Portularrumeren (Tolosa, 1975) eta Ioritz Galarraga Capdequiren (Amasa, 1991) kasuan.

Katixa, jaiotzez, zarauztarra den arren, hiru urterekin Tolosara etorri zen eta zeharo tolosartatuta dago. Nongoa den galdetzean, amak erantzun hori emanda errieta egingo dion arren, tolosarra erantzun du. Ioritz Galarraga Capdequik segituan hitza hartu eta ni amasarra esan du, galdetu aurretik. Nortasun Agirian Villabona jartzen dion arren, bera Amasakoa sentitzen da.

Ez ditu jaioterriak, ez bizitokiak bazten; bai, ordea, dantzak. Nahiz eta badiren bizitzan barne kezkek dantzan jartzen dizkieten beste hainbat gai, dantzan baino orekariago sentitzen

diren hainbat esparru, batzen dien horretaz jarduteko batu ditu TOLOSALDEKO ATARIA-k.

Katixa Perea: Nik betidanik egin dut dantza...

Ioritz Galarraga: Nik 15 bat urte daramatzat. Euskal dantzetan hamaika urte nituela hasi nintzen, hainbat taldeetatik pasa naiz eta egun Dantzaz konpainian bi urte beteko ditut. Tarte-an, ballet eskolak ere jaso ditut. Eduk [Edu Murumendaraz: koreografoa, dantzaria eta zuzendaria] animatuta hasi nintzen, Aukeraren sartzeko gatzegia nintzela eta oinarria hartzea ondo etorriko zitzaidala esanda. Teknika hori ikasteak euskal dantzetarako onura ekarriko zidala esan zidan eta hobetzeko grin horrek tirata hasi nintzen.

K. P.: Ballet klasikoa dantza estilo guztien oinarria dela uste dut. Gorputzaren kontrola izaten laguntzen dizu eta hori lagungarria da beti, dantzatzen duzuna dantzatuta. Dantza ikasketetan (izan dantza garaikidean, flamen-

koan...) beti derrigortzen dute ballet klasikoa ikastea, beraz, bai dela oinarria. Baina horrek ez du esan nahi ballet klasikoa jakiteagatik edozer dantzatzen jakingo duzunik.

Nik lan egiten dut euskal dantzako ikasleekin, zeinak sekula ez duten ba-

«Alemanian egoera guztiz bestelakoa da. Han dantzaria izatea oso ondo ikusita dago»

KATIXA PEREA

llet klasikoa egin. Esaten dietenean kontziente izaten hasiko direla gorputzarekin zer ari diren egiten, harritu egiten dira. Orain arte egindakoa ondo egiten ez dutela esaten dietela sentitzen dute. Gerora, ereindakoaren fruituak ikustean, esan nahi niena ulertzen dute.

I. G.: Gorputzaren kokapenean tematzen zarete, baina hori lortu behar da hortik atera ahal izateko. Garaikidean dagoen askatasun horretan guztian



OLATZ ARTOLA

ere laguntzen du kontrol horrek, gero deskontrola izateko.

K. P.: Eta bueno, euskal dantzetatik datozen pauso batzuk daude balletetan... Lotura handia dago!

Herri kulturaren parte, transmisio eta tradizio, folklore.

I. G.: Euskal dantza guztiak tradizionalki dira. Orain hasi gara pittin bat nahasten, modernizatzen; baina guztiz lotuta dago tradizioarekin eta folkloreakin.

K. P.: Baita balleta ere. Erromantizismo garaiko balletak lotura handia zuen folkloreakin.

«Balletetan pauso batzuk euskal dantzetatik datozenak daude»

IORITZ GALARRAGA

Baina tradizioak, beti tradizio?

K. P.: Nik ikusten dudana da hau ignorantzia dela. Hamaseigarren mendean gizonetakoak ziren dantzatzeko zutenak, garrantzia gehiago zutenak. Luis X. nak sortu zuen lehen balleteko eskola eta gizona zen. Erromantizismo garaia arte emakumeak ez zuten indar

asko. Ordun hasi ziren puntetara igozen, tutua janzten... Eta orduan hasi zen mutila beste paper bat egiten, neskaren laguntzaile izatearena; eta orain, nik uste dut, mutila ez dela soilik gu eusten gaituena. Berriz garrantzia hartu du. Hori balletak izan duen eboluzioaren barruan; baina, bestela, ez dakit ezjakintasunagatik edo burugorrrak garelako den, gizartean talka eragiten du mutil bat balleta dantzatzeko ikusteak.

I. G.: Nik euskal dantzak hasi eta gutxira utzi nituen, mutil bakarra nintzelako. Gero berriz ere animatu nintzen, eta mutil gehiago zeudenez, jarraitu egin nuen. Benetan ez dakit zenbaterainoko garrantzia duen horrek, baina haurra zarenan alboan beste mutil bat izateari garrantzia ematen zaio.

K. P.: Nik uste dut adin batzuetan garrantzitsua dela laguna zurekin egotea.

I. G.: Ondoren, balletetan hasi nintzen, bai egon nintzela bakarrik. Hasi nintzen mutil bakarra nintzen eta, gainera, balleta zen... Baina tira, esan duzunari helduta, euskal dantzetan ere tradizionalki pisua gizonetakoek izan dute. Emakumea apaingarri modukoa

zen. Orain hasi da hori aldatzen, baina, tradizionalki, gizona zen ikusgarrien egiten zuena, hanka goren altxatzen zuena, salto altuen egiten zuena...

«Nik ikusten dudana da hau ignorantzia dela. Hamaseigarren mendean gizonetakoak ziren dantzatzeko zutenak, garrantzia gehiago zutenak»

KATIXA PEREA

Tradizionalki, azkenean, gizonak bere papera zuen eta emakumeak berea. Eta, bikoteka zenean, bata zen emakumea eta bestea gizona. Horri eutsi egin zaio, baina, zorionez, gaur egun, rol horiek hausten hasi gara. Adibidez, herri bakoitzak bere dantza tradizionala eduki ohi du, eta, festetan, dantza hori egin izan da. Orain hasi dira emakumeak dantza horietan parte hartzen. Nire ustetan jarraitu behar dugu rol horiek hausten.

K. P.: Nik askotan jarri ditut ikasle neskak mutilen paperean, mutilik ez zegoelako. Egia da, balletetan, karakteri-

zazio pertsonaietan, batzuetan, gizonetakoak jartzen dituztela emakume paperak egiten, komikoagoa delako edo.

Balletean, idatzi gabeko lege bat dago esaten duena puntetan soilik emakumeak egiten duela. Egun badaude konpainiak non gizonetakoek tutua jartzen duten eta puntetan egiten duten dantza.

Eta iaz, guk, gai honi helduta, eztabaida bat izan genuen. Mutil batek puntetan egin nahi zuen dantza eta guri ondo iruditu zitzagun, asko hobe-

«Iruditzen zait, lanbide guztietan bezala, gauzak gogoz egiten badituzu, lortuko duzula hortatik bizitzea»

KATIXA PEREA

tuko zuelako. Berari jaialdian puntak egiteak ilusio handia egiten zion. Guri hasieran hori arrotza egiten zitzaigun, baina, ikasleek esan zidaten ea rol sexistak horiek jarraitu behar genuen. Arrazoi zuten. Aldatu beharra zegoen. Eta beraiekin batera atera zen puntetan dantzatzeko.

Printzesaren fabula.

K. P.: Ariketa batzuk egiteko moztortu egiten gara. Kutxa batean izaten ditugu moztortuak eta zoriz egokitzen zaiei paper horretan sartu behar iza-

Tolosako kultur etxeko goiko solairuko ispiluari begira gorputza orekatzen, kontrolatzen, ikasi zuten guztien irakaslea izan da Katixa Perea. Baita, gerora, musika eskolara musika egitera joan beharrean dantzara joaten ziren horien ere. Izan ere, Perea dantza irakaslea da, nola Donostian hala Tolosan. Azken honetan urte luzez izan da irakasle eta orain koordinatzaile lanetan dabil.

ten dute. Ez dut ukatuko, printzesaren moztortu tokatuz gero pozarren jartzen dira.

Kontrara, mutilaren papera egiteko eskatzen diedanean ez dut arazorik izaten bat edo beste animatzeko. Segituan animatzen dira.

I. G.: Nik dantza egin izan dut rolak guztiz hautsita zeuden konpainian. Ez ziren ez mutilak ez neskak bereizten. Tradizioa modernitatean nahasten genuen eta guztiok guztia egiten genuen. Ez dago rol markaturik, baina horretan ahalegindu direlako.

Plazatik aretora, aretotik kalera.

I. G.: Plazan dantzatzeko dena beti ikusi izan dugu, erromerietan eta festetan. Eta edonork egin ditzake dantza horiek: soka dantza...

K. P.: Bai, eta nahiz eta ez jakin, ikusten duzu jendea saiatzen. Balletarekin ez da hori gertatuko. Baina, era berean, iruditzen zait gaur egun Tolosan balletera doan haurra ikustea ez dela horren arraroa egiten.

I. G.: Atzerrian galdetzen ziguten ea zelan ikusten genuen Euskal Herrian

dantzaren kultura, ea jendea joaten zen ikustera. Nik uste dut tradizioaren inguruko kultura badagoela eta edozein herritako talde txiki batek jendea mugitzen duela. Guri hori gertatzen zaigu, jende gehiago joaten da Aukeraren emanaldietara Dantzaz-ekoetara

«Euskal dantzaren tradizioa pisua gizonetakoek izan dute. Emakumea apaingarri modukoa zen»

IORITZ GALARRAGA

baino. Publiko gehiago daukagu hemen, Euskal Herrian, Aukerarekin.

K. P.: Bai eta Aukeraren hemengoek osatzen duzue eta bakoitzak bere gertuko sarea dauka, ikustera joan daitekeena.

Balletaren kasuan, sarrerak ez dira merkeak izaten eta jendeari kosta egiten zaio hori ordaintzea. Izen handia badauka, ezagunak badira, akaso arriskatzeko dira eta erosi egiten dituzte. Bestela, ez.





Tolosako Laskorain ikastolan ere aritu da jardun horretan, baina lekzio gehien dantzan eman ditu amasarrak. Irakaslea ez den arren, askorentzat maisua da dantzari. Euskal dantzetan hasi zen arren, ballet eskolak ere jaso zituen, oinarri hobea izateko, hobetzeko. Egun Dantzaz konpainian dabil.

Gaurko ogia, biharko gosea?

K. P.: Ez daude konpainia asko hemen, beraz, zaila da hemen dantzari moduan lan egitea. Diru laguntzak badaude bai, eta produkzioak ateratzen dira, baina zaila da. Irakasle lanetan

«Gorputzaren kokapenean tematzen zarete, baina hori lortu behar da hortik atera ahal izateko»

IORITZ GALARRAGA

aritzea errazagoa ikusten dut, ni hortatik bizi naiz!

Iruditzen zait, lanbide guztietan bezala, gauzak gogoz egiten badituzu, lortuko duzula hortatik bizitzea. Baina egia da hemen dantzari izateko mugitu egin beharra daukazula. Zuk zortea izan duzu, Ioritz, baina badakizu aurrera begira mugitzea egokituko zaitzula.

I. G.: Bai, bai; hori horrela da. Begira, jendeak esaten dit: 'Orduan ez duzu lanik egiten, ezta?' Eta azaldu behar iza-

ten dut zortzi orduz aritzen naizela, eta orduan hasten dira nire lanbidea lana kontsideratzen.

K. P.: Dantza ikasketak egingo dituzula esaten duzunean bezala, jarraian galdetzen dizute: 'Eta zer gehiago egin behar duzu?'

I. G.: Baina tira, genionari helduta, esan arrazoi duzula, oso zaila da hemen eta hortatik bizitzea.

K. P.: Alemanian egoera guztiz bestelakoa da. Asteazken zehar kultur egitasmoak ikustera joaten dira, asteazken buruzuri batean, adibidez. Han dantzaria izatea oso ondo ikusita dago.

I. G.: Bai! Guk dantza batzuk jendarte-an egiten ditugu, publikoarekin interaktuatzen. Hemen oso zaila egiten zaigu publikoak parte hartzea eta Alemanian, ordea, kontrakoa gertatzen da.

K. P.: Eta hori hangoak hotzak direla esaten dugula...

I. G.: Bai, bai... Baina begira...

Eta horrela jarraitu dute, dantzaren egungo argazkiari begira. Bakoitza beretik, baina biak dantzatik eta dantzarako.



Argi/Itzalak

Protagonista guztien elkarrizketa, bideo, argazki eta audioak irakurri, ikusi eta entzuteko aukera izango duzu.

Laguntzailea





KUTTUNAK

Haurra nintzenean, Gabonetan, oparitu zidaten tutua. Esfortzu handia suposatu zuen nire etxekoentzat. Tutu erromantiko bat da eta horrek are bereziagoa egiten du. Dantzatu nituen lehen koreografiak tutu honekin dantzatu nituen. Aurrerago, nire ikasleek erabili dute.

LABURREAN

Dantza modalitatea: Klasikoa eta neoklasikoa.

Dantzaria: Gaztetako idoloak: Natalia Makarova eta Mikhail Baryshnikov; gero, Sylvie Guillem eta Angel Corella; gaur egun, Lucia Lacarra eta Daniel Camargo.

Dantza obra bat: On Kixote.

Dantzalekua: Victoria Eugenia.



LABURREAN

KUTTUNAK

Dantza modalitatea: Garaikidea.

Dantzaria: Orain pila bat ezagutzen ari naiz, beraz, ez nizuke bakarra esango. Topatuko dut.

Dantza obra bat: Nik egin ditudanetatik, Gernika, Maurizia eta Aureo.

Dantzalekua: Kalea.

Amasako Oilasko Joko Eguneko zapia.
Amasarrontzako egun berezia da.
Baserritarrez jantzita joaten gara,
zapiarekin, eta, egun horretan, baserriz
baserri dantzan aritzen gara.
Beraz, egun berezi horrekin eta
folklorearekin, tradizioarekin eta
dantzarekin lotzen dut zapia.

“

HEDABIDEEN SUSTENGATZAILE NAGUSIAK HARTZAILEAK DIRA

ALBERTO BARANDIARAN
HEKIMENeko ZUZENDARIA

Euskal hedabideen elkargunea da Hekimen. Asko dira euskara hutsean aritzen diren hedabideak eta asko ere egunerokotasunean gainditu behar dituzten mugak. Elkartu eta sendotu, hori da jarraitu beharreko bidea.

”

Rebeka Calvo

2013an hartu zuen Alberto Barandiaranek (Altsasu, Nafarroa, 1964) Hekimeneko zuzendaritza. Euskal hedabideen arteko harremana sendotzeko, diru laguntza publikoen alorrean eragin eta hitzarmenak bilatzeko, publi-

zitate instituzionalaren alorrean euskal hedabideen portzentajea emendatzeko eta euskal hedabideen behatokia sustatzeko helburuz sortu zen Hekimen. Aurrera pausoak eman dira elkargunea sortu zenetik eta egitekoak asko badira ere, euskaraz aritzen diren hedabideen arteko elkar-

lana sustatzea ez da makala. Euskal Herri euskalduna nahi bada, komunikabide esparru indartsua izatea ezinbestekoa da eta horretan eragiten du Hekimenek. ATARIA-k ere oinarri horiekin egiten du bat eta Hekimeneko zuzendaritzako kide da 2017ko martxotik.



GORKA RUBIO / ARGAZKI PRESS

Diru laguntza publikoetan eragitea da Hekimeneko helburuetako bat eta bide horretan, garatzen ari zareten itunak berebiziko garrantzia du, ezta?

Hekimen sortu zenetik beti saiatu izan gara sektorearentzat, hau da, euskarazko hedabideentzat, esparru egonkor, sendo eta jarraitu bat lortzen, finantzazioa eta bideragarritasuna bermatzeko. Orain arte beti ibili izan gara urtez urteko diru laguntzetako deialdien menpe. Tokikoen kasuetan hitzarmenak lortzen aritzen zarete udal erakundeekin, hainbat urteetarako, urtebeterako... kasuistika luzea da. Baina, batez ere, bai foru aldundiaren eta baita Jaurilaritzaren diru laguntzei dagokienez, urtez urteko borrorak izaten ditugu hurrengo urteko diru laguntzak zenbatekoak izango diren zehazteko. Horrek sektorea lehian jartzen du, neurri batean. Hau da, hedabideak saiatu behar dira besteak

baino gehiago lortzen, poltsa ez baita gehiegi handitzen, eta ondorioz, beharrak beti handiak direnez, lehian jartzen ditu berez lehiakideak ez diren hedabideak. Gipuzkoan zorionez, ia eskualde guztietan daude tokiko hedabideak, eta horretaz gain, prentsa nazionala dago eta baita beste hedabide gehiago ere. Baina toki bakar batean ez daude bi edo hiru hedabide, elkarrekin lehian daudenak, eta egon diren tokian, Tolosaldean bezala, bateratu egin zarete, indartsuagoak eta eraginkorragoak izateko. Lehia horrek beraz, neurri batean sektorea desitxuratzen du. Urtez urteko dinamika hori, gure ustez, ez da eraginkorra. Horregatik esan genuen hasieratik eredu iraunkor bat nahi dugula. Horrekin bueltaka geundela Eusko Jaurilaritzak hiru urterako diru laguntza –2016, 2018– onartu zuen eta beraz, ez dago aukerarik ez gora ez behera egiteko, baina hori gainditu beharraz aritu

gara, eta lege, itun edo kontzertazio bati buruz hitz egiten ari gara jada.

Eta zer dago horren atzean? Zein da oinarritzko ideia?

Ikastolen kasuan bere garaian ere horrela ibiltzen ziren, beti diru eske, gurasoen ekarpenetatik tiraka... administrazioak onartu zuen arte, zerbitzu publiko bat eskaintzen dutela, administrazioa iristen ez den hori eskaintzen dutela, eta beraz, zerbitzua kontzertatzeko akordioa egin zuten. Hedabideen kasuan ere antzeko zer bait egin daitekeela pentsatu genuen, euskarazko komunikazioa eskubide bat bada –eta legezt aitor tuta dago hiztun euskaldunon eskubide bat dela–, nola iristen gara toki guztietara? Euskarazko hedabideen bidez. Beraz, goazen kontzertazio ideia hori txertatu ote daitekeen eztabaidatzera. Hori da sorrerako ideia eta hori da oinarria. Bi

«Garrantzitsua da ahulguneak detektatu eta ez ezkutatzea, baina aurrera egiteko indarguneak ere baditugu»

ideia daude hor: aitor tza, egiten den lan hori aitor tzea, alegia; eta konpromisoa, hau da, lortzen badugu hainbat urtetako plangintza bat, adostu dezagun administrazioarekin zein konpromiso hartu beharko dituen gauza gehiago egiteko. Esate baterako, euskarazko hedabiderik ez dagoen eskualdeetan euskarazko hedabide bat martxan jartzeko edota irrat i sare indartsu bat egiteko. Hainbat hilabete egon gara lanean horretan, eta orain nolabaiteko korapiloen inguruan ari gara; zenbat diru beharko litzatekeen hau guztia martxan jartzeko, zehaztutako oinarri horiek xehatzen, zein baldintza behar diren, zein konpromiso behar diren... Eta baita egitura juridiko osoa zehazten ere, hau da, honek guztiak zein izen du? Patzuergoaren ideiarekin ari gara. Patzuergoan erakunde publikoak eta ez publikoak batzen dira, eta badago formula juridiko bat gauza hauek antolatze ko. Horretan ari gara. Ideiaren aldekoak gara foru aldundian, Jaurilaritzan eta Hekimenen, baina orain ideia azkendu behar dugu, eta hori izango da hurrengo hilabeteetan egingo dugun lana.

Aitor tza eta konpromisoa aipatu dituzu. Bingen Zupiria sailburuak publikoki aitor tu zuen euskarazko

hedabideek egiten duten ekarpena, baina konpromisorik ez dago oraindik.

Aitortzarena egia da, eskatu genuen eta eman ziguten, aitortu dute dagoen sarea minimoa dela eta interesgarria dela eta sustatu behar dela. Baina konpromisoak bi aldetatik etorri behar dira: guk ere aitortu behar dugu, eta aitortu dugu, administrazioak eta erakunde publikoek urteetan egindako lana ezinbestekoa izan dela dagoen euskarazko hedabideen sarea mar txan jartzeko, baina bi aldetatik etorri behar du konpromisoa. Erakunde publikoek konpromisoa hartu behar dute, beste baldintza batzuk jartzeko mahai gainean, eta iraunkortasuna izan dezaten, hau da, ez dadila izan denbora gutxiko kontua. Eta euskarazko hedabideek ere hartu behar dute konpromisoa esateko 'bai guk gure proiektua daukagu, ATARIA-ren proiektua, gure proiektua da eta guk erabakiko dugu norantz eraman eta abar, baina sektoreari begira ATARIA-ren, Berriaren edo Argiaren eta beste guztien gainean dagoen sektoreari begira zein konpromiso hartuko ditugu?'. Elkarlana konpromisoa da, ATARIA-k bere garaian hartu zuen konpromisoa da hori, eta hori beste toki batzuetara esportatu daiteke? Edo nazionalen eta tokikoen artean egin daiteke horrelako planteamendu bat gauza batzuk konpartitzeko? Edo egin dezakegu elkarrekin kirolari buruzko astekari bat edo Interneten 24 orduko atari bat berri eguneratuekin? Alde horretatik aipatzen dut elkarlana. Eta ez da bakarrik produktuen arteko elkarlana, beste mila gauzetan ere egin daiteke elkarlana. Hori da eskatu behar dugun konpromisoa. Konfiantza dago horren atzean. Hau guztia prozesu bat da eta prozesuari arnasa eman behar zaio, baina egia da ere, guk argi dugu, hau laster konpondu behar dela. Edo behintzat laster argitu behar da bide hori badagoen.

Sektorea duintzeaz hitz egin izan dugu. Zein zentzutan?

Beti esan izan dugu sektorea duindu behar dela, eta hori nola kalkulatzin

da? Hainbat modu daude; inbertsioei begira jarri gaitezke, edo egiturari, edo produktu gehiago ateratzeari... Baina guk egin dugun ariketa izan da langileen lan baldintzak hobetzera joatearena. Iruditzen baitzaigu sektoreak daukan indar handiena langileak direla, giza kapitala. Profesional oso onak daude, konpromiso handia dutenak bere hedabidearekiko, eta teknikarik eta ezagutzarik onena izan genezake, baina gehiago behar da. Hortik abiatu gara esateko diru gehiago behar dugula, zertarako behar dugu diru gehiago? Ditugun profesional bikainei eusteko. **Abiadura bizian doa gizarteak, hedabideek ere abiadura horretara egokitu behar gara, baina horretarako baliabideak behar dira, alegia.**

Giza baliabideak ditugu, baina kazetari bati, kazetari bikaina izanda, hilean 1.000-1.200 euro ordaintzen badizkiozu, konpromiso handia izango du eta jarraituko du, baina aukera badu, utzi egingo du. Eta hori gertatu da eta gertatzen da. Txandakatze handia dago sektorean eta horrek galera dauka, esperientzia galtzen baita. Konpromiso-

«Sare garrantzitsua dago, ez gara konturatzen zein garrantzitsua den hainbat herri eta eskualdetan irratit bat edo aldizkari bat izatea»

ari eusten zaio, baina ez da erraza hori guztia oso luzean mantentzea. Berrikuntzan hobetu nahi baduzu, produktu berriak atera nahi badituzu, etorkinarekin asmatu nahi baduzu.. beharrezkoa da jende gaztearen ilusioa, baina baita eskarmentua daukan jendearen konpromisoa ere. Eta bi horiek lan baldintzak hobetuz lortu daitezke, besteak beste.

Zein pisu dute hedabideek euskararen sustapenean?

Sektore honek egiten duen lana garrantzitsua da eta aurrera begira are garrantzitsuagoa izango da. Orain asko hitz egiten da erabileraz, eta euskararen erabilera sustatu behar da, eta



badakigu hizkuntza baten erabilera ez dela bakarrik ahozkoan ematen, ahozkoan ematen da, batez ere, eta hor bizi da, baina ahozkoaren inguruan gaur egun komunikazioa aldatu da. Ahozkotasunak mantentzen du balantza, baina beste komunikazioak geroz eta garrantzia handiagoa dute, bai sare sozialen bidez, bai idatzizkoaren bidez... Gazteen artean ahozkotasunak geroz eta pisu gutxiago dauka beren komunikazio jardunean. Eta hor hedabideek sekulako garrantzia daukate. Hedabideek hor paper estrategikoa dute.

Aitortzaz hitz egin duzu, administrazioaren aitortzaz, baina gizartearen aitortza badute hedabideek. Behatokiaren azken datuek diote %10 igo direla sareko bisitak.

Etengabeko igoera dago, egia da mundu guztian igotzen ari dela sareko kontsumoa, baina gurean ere bai, eta gainera modu nabarmenean eta hori azpimarratu behar da. Gero aitortza... hedabide bakoitza da aitortza horren lekuko, inor ez da bakarrik diru laguntza publikoetatik bizi, gure hedabideen sustengatzaileak handienak hartzaileak dira, ekarpen handiena horiek egiten dute, harpidetzen edota kanpainen bidez, eta alde horretatik, hori da aitortza nabarmena. Sare ga-



I. LUQUE

rrantzitsua dago, ez gara konturatzen zein garrantzitsua den hainbat herri eta hainbat eskualdetan edukitzea irrati bat edo aldizkari bat... zein garrantzitsua den. Edo zein garrantzitsua den 25 urtez egunkari nazional bat edukitzea, ia 100 urte egitera doan

«Gure buruari formazioa emateko plan bat dugu eta horretan Behategia funtsezkoa izaten ari da»

aldizkari bat edukitzea, gazteei begirako edo pentsamenduari buruzko aldizkari bat kaleratzea... hor aitortza bat badago, nabarmen, aitortza hori lortzen ez duten hedabideek itxi egiten dute, ez dute irauten, eta gaur egun, inoiz baino hedabide gehiago daude. Jendearen aitortza hor dago.

Behatokiak lan garrantzitsua egiten du Hekimenen barruan, zertan dago orain?

Hasi nintzenean beti entzuten nuen datuak behar genituela. Jakin behar dugu benetan gure tamaina zein den. Eta Behatokiak egin duen lan garrantzitsuena hori izan da: datuak bildu, aztertu eta sistematizatu ditu, ikerketarako nola erabili ahal diren aztertze-

ko. Behategian azken bi urteetan ibili gara mintegi bat antolatzen eta sektoreari buruzko datuak biltzen. Gaur egun, inoiz baino datu gehiago ditugula esango nuke. Horri esker badakigu Interneteko kontsumoa zein den, badakigu enpresen egitura nolakoa den, badakigu zein zailtasun ekonomiko eta aukera ekonomikoak ditugun...

Hori guztia aztertzea tokatzen zaigu orain. Ikerketara begira dago hortaz, Behategia, baina baita trebakuntzara begira ere. Ohartu ginen gure sektorean, beste sektore guztietan bezala, trebakuntza eta formazio etengabea oso garrantzitsuak direla, kontsumitzeko moduak, sortzeko moduak eta abar etengabe aldatzen ari dira, eta ulertu behar dugu hori guztia. Enpresetan trebakuntza eskaintzen da askotan, baina iruditzen zitzaigun batzuetan euskarazko hedabideei zuzenean bideratutako trebakuntza falta zegoela, eta hori ere aurrean jarri dugu abian.

Gure buruari formazioa emateko plan bat egin dugu eta horretan Behategia funtsezkoa izaten ari da, batez ere, sareari eta Internetari begira. Datuak irakurtzeko, plangintza potoloa dugu eskuartean lehen aipatu dugun itun hori begira. Iruditzen zaigu konpromisoak hartzeko garaian sektorea, panorama, zein den ondo ulertu behar dugula, dauzkagun datu horiek zer adierazten duten ulertu behar dugu, eta gure asmoa da Liburu Zuria martxan jartzea. Liburu Zuria diagnostiko integral bat da, nolako sektorea daukagun, zein behar ditugun eta norantz begira jarri behar dugun zehazteko. Administrazioarekin eta akademiarekin bat eginda egingo dugu eta horretan Behategiak funtsezko garrantzia du.

Sektorea batuta al dago?

Hekimen da horren adibide. Datuak biltzeko unean bagenuen zalantza hori, datuak eman eta guztien eskura jartzeko prest ote dago sektorea? Urrats bat, bide bat, eman da horretan, elkarlanean, konfiantzaren esparruan, alegia. Arazoak daude, egia da, kosta egiten zaigu geure txokotik atera eta bes-

teei begiratzea, baina hori da Hekimenen lana, horretan bide bat egitea. Ez da erraza, baina interesgarria da sektoreak hartu duen bidea.

Xenda teknologia izan daiteke elkarlan horren adibiderik praktikoa.

Hainbat bide daude bai, eta hori da bat. Dokusare teknologia garapen teknologiko bat da, Elhuyarrek egin duen sistema baten garapena da, eta horren bidez norberak bere webgunean duen informazioan gehiago sakontzeko aukera emango du, gainerako hedabideei esker. Xenda edo Dokusare sistema horren bidez, albiste jakin batean gehiago sakondu nahi badu, albiste horretan izango du aukera gai horren inguruan euskarazko hedabideek egin dituzten lanak ikusteko. Gure ideia da kontsumoa batzea, geroz eta zailagoa da hedabide bakar batetik informatzeko, geroz eta gehiago ibiltzen gara batetik bestera saltoka, eta guk nahi duguna da gutxienez lehen buelta hori gure artean izan dadila erraztea. Eraikusten dute horrelako gauzek zer gogo dagoen eta zer garrantzia ematen zaion sektorea indartzeari.

Zeintzuk dira sektorearen ahulda-deak eta indarguneak?

Prekariatatea aipatuko nuke gabezia bezala, hedabide askotan egunerokotasunetik ateratzeko zailtasunak daude, uste dut kosta egiten dela oraindik hartzaileak dituen beharrak eta nahi guztiak asetzea, batzuetan uste dut gehiago begiratu behar zaiola hartzaileak nahi duenari eta gehiago detektatu behar dela benetan zein diren kontsumo gogoak, eta hor badago lana. Elkarrekin gauza gehiago egin daitezke oraindik, etorriko da, baina egia da ahul samar gaudela elkarlan esparruan, kosta egiten zaigu begirada gaintzea. Indarguneen artean berriz, ideia bat baino gehiago aipatuko nituzke; dagoen dinamismoa, toki askotara iristeko borondatea, urtero sortzen direla hedabide eta proiektu berriak... Garrantzitsua da ahulguneak detektatu eta ez ezkutatzea, baditugu eta, baina aurrera egiteko indarguneak ere baditugu. Etorkizun polita dugu aurretik.

Ataria bertso jaialdia 2018

 **tolosaldeko
ataria**
www.ataria.eus • 107.6 fm

Urtarrilak 20, larunbata.
19:30. Tolosa, Leidor.



Agin
Laburu



Aitor
Mendiluze



Ametz
Arzallus



Andoni
Egaña



Beñat
Iguaran



Maialen
Lujanbio



Gai jartzailea:
Amaia
Agirre

Sarrerak Atarikideentzat, 8€

Egin zure erreserba urtarrilaren 5era bitarte.
Gehienez 2 sarrera bakoitzak.

Deitu edo idatzi:

943 65 56 95 edo atarikide@ataria.eus-era.

Antolatzaileak



Babeslea



Laguntzaileak



Agenda

OSTIRALA ABENDUAK 22

ALEGIA

KONTZERTUA

18:30. Loatzo musika eskolaren Eguberrietako kontzertua, Elizpe zinema aretoan.

ANOETA

ANTZERKIA

20:30. Barrikotea eta *Eingo al deu?* antzerkia, Anoetako Gaztetxean.

BERASTEGI

HERRIBATZARRA

21:00. Udalak herritarrak gonbidatu ditu. Hamargarren herri batzarra izango da, 2018ko aurrekontua aurkeztuko dute, Gorosmendi eta Ipuliño mendien larretze proiektua eta hirigintza obrak izango dituzte hizpide.

LIZARTZA

GABON ESKEA

Goizean. Lizartzako haur, guraso, irakasle eta herritarrak herrian zehar gabon kantak abastera aterako dira. Ondoren hamaiketako guraso elkartearen eskutik.

TOLOSA

DASTAKETA

18:00. Bonbier eta Birra berezien dastaketa. Garagardo ezberdinak probatzeko aukera izango da. Bonberenean.

KONTZERTUA

18:30. Topic solidarioa. Tolosako Musika Eskolak emanaldia eskainiko du, ikusle guztientzat.

19:30. Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestra. Leidorren.

23:30. Orbela Gauak ekimenaren barruan, Joxe Mendizabal ariko da. Gaur egungo eta garai bateko euskal musika. Orbela tabernan.

KARRUSELA

11:00-14:00 eta 17:00-20:00.

Eguberrietako karrusela Trianguloan, urtarilaren 7a arte.

ZIZURKIL

LIBURUAREN ASTEA

17:30. Teodoro Hernandez XVI. Ipuin lehiaketa eta Plazida Otaño I. Booktrailer lehiaketako sari banaketa Plazida Otaño



POSTU BEZAINBESTE AUKERA

Urtero legez Tolosako plazek Gabonetako Azoka Berezia hartuko dute, ehundik gorako postu izango dira, bakoitzarentzat eskaintza zabala beraz: artisauek, janariak, animaliak ikusgai... azken opariak osatzeko aukera. ITZEA URKIZU

liburutegiko gela balioanitzean. Plazida Otaño liburutegian.

LARUNBATA ABENDUAK 23

ALEGIA

KONTZERTUA

19:45. Txintxarri Txiki eta Txintxarri Abesbatzen kontzertua. Elizan.

ASTEASU

ORGANO EMANALDIA

18:30. Myriam Ullanga organista eta Usarrabi abesbatzako heldu eta umeek eskainiko dute kontzertua. Elizan.

TOLOSA

XX. GABONETAKO AZOKA BEREZIA

09:00. Gabonetako azoka berezia guñe desberdinetan izango da. Trianguloa plazan, Plaza Zaharrean, Alondiga plazan, San Frantzisko pasealekuan, Berdura plazan. Asteroko azokan Berdura plaza, Zerkausian eta Euskal Herria plazan.

OKUPAZIO EGUNA

Bonberenea okupatu zeneko eguna ospatuko da.

11:00. Txarangarekin kalejira.

14:30. Bazkaria.

21:00. Afaria.

23:59. Su artifizialak.

IGANDEA ABENDUAK 24

ABALTZISKETA

GABON ESKEA

09:00. Eskolako ikasle, guraso eta irakasleak kantuan aterako dira, baserriz baserri.

09:00. 12-16 urte bitarteko gazteak elkartuko dira baserriz baserri kantuan aritzeko.

ADUNA

GABON ESKEA

09:00. Gabon eskean aterako dira herritarrak Adunako eskolak eta Basopeta guraso elkarteak antolatuta. Herria zeharkatuko dute kantuan.

ALEGIA

GABONEGUNA

11:00. San Juan eskolako ikasleak abesten kaleetan zehar.

Agenda

18:30. Olentzero eta Mari Domingiren etorrera. Eskola aurrean itxarongo dituzte. Txintxarri Abesbatza kantari ibiliko da.

ALKIZA

GABON ESKEA

Goizean. Gabon eskean aterako dira herritarak Alkizako eskolak eta Beleburiupe guraso elkarteak antolatuta. Auzoz auzo zeharkatuko dute herria kantuan.

ALTZO

GABON ESKEA

09:30. Ikasle, irakasle eta gurasoen Gabon eskeko erronda etxez etxe. Altzo Azpitik aterako dira.

AMEZKETA

GABON EGUNA

09:30. Zumadi eskolako haurrak Ugartetik aterako dira Gabon kantak abesteko.

12:00ak aldera Olentzero eta Mari Domingi batuko zaizkie. Gero plazako karpan hartuko dituzte haurrak.

13:30. Haurrentzako bazkaria Zazpitturri elkartean.

Ondoren. Saskiaren zozketa.

ANOETA

GABON EGUNA

Goizean. Goizean gabon kantak izango dira. Anoetako Herri Ikastolakoak kantari aterako dira herrian zehar.

Goizean. Kukuak Kantuz taldekoak kantari aterako dira herrian goizean zehar.

18:00. Olentzero eta Mari Domingi badatoz. Oinez etorriko dira Isastitik. Plazan egingo zaien ongi etorrian Loatzo musika eskoak eta Anoetako Anitz dantza taldeak hartuko dute parte. Ondoren Olentzerok eta Mari Domingik gozokiak banatuko dituzte hurbiltzen diren ume eta gaztetxoaren artean.

ASTEASU

GABON EGUNA

10:00. Gabon eskeko kantua egingo dute Pello Errotako ikasleek.

12:00. Olentzero eta Mari Dominginen etorrera frontoira.

BALIARRAIN

GABON ESKEA

Herritarak, haur, gazte eta helduak, elkarrekin etxez etxe abastera joango dira.



GABON ESKEA, OLENTZERO ETA MARI DOMINGIREKIN

Gabon Eguna badu ohituratik asko, herri bakoitzak bere liturgia du eta aurtengoa ez da zalbuezpena izango. Zenbaitetan gainera gabon kantek aparteko laguntzaileak izango dituzte, Olentzero eta Mari Domingi. **JON MIRANDA**

BERASTEGI

GABON EGUNA

Egun guztian zehar kantari aterako dira. Iluntzean plazan Olentzeroren etorrera ospatu dute.

BERROBI

OLENTZERO ETA MARI DOMINGI

18:00. Olentzero eta Mari Domingi herriko plazara opariak banatzera joango dira. Plazan herriko haurrek dantza egingo diete eta gaztaina errearekin egongo dira.

BIDANIA-GOITZ

GABON EGUNA

09:00. Goizatik abiatuta, egun guztian herriko haur eta gurasoak herrian zehar abesten ibiliko dira.

18:30. Goiztara Olentzero eta Mari Domingi iritsiko dira eta frontoian ongi etorria egingo zaie.

ELDUAIN

GABON ESKEA

14:30. Plazan elkartuko dira kantuan ateratzeko.

GAZTELU

GABON EGUNA

Goizean. Kantatzera aterako dira.

Arratsaldean. Olentzeroren etorrera.

HERNIALDE

GABON EGUNA

09:00. Irteera bentan eta herri guztian zehar baserriz baserri kanturako eguna.

18:30 - 18:45. Olentzeroren etorrera. Olentzerok herriko umei opariak banatuko dizkie eta errolatuta ez dagoen ume batek oparia Olentzerok ematea nahiko balu, udalera ekarri beharko luke izena jarrita.

IBARRA

OLENTZERO ETA MARI DOMINGI

18:30. Olentzero eta Mari Domingiren jaitsiera, San Bartolome plazan, Hauspoa elkartearen eskutik.

IKAZTEGIETA

GABON EGUNA

08:30. Herriko taldea elkartuko da baserriz baserri eta herrian kantuan eta eskean aritzeko.

18:00. Olentzero eta Mari Domingiren etorrera plazan.

IRURA

GABON EGUNA

11:30. Hamaiketako plazan eta Gazte Alaiak elkartean ikastolarekin abesten ateratakoentzat.

12:30. Mari Domingiren etorrera, gutunak

eta jostailu zaharrak jasoko dituz plaza.

18:00. Olentzero opariak banatzera jaitsiko da, eta jaiotza bizidunari abestuko zaio.

LARRAUL

GABON EGUNA

09:30. Plazatik aterata gabon eskean ibiliko dira herrian zehar. Herritar guztientzat zabalik izango da ekimena.

19:00. Plazan Olentzeroren etorrera ospatuko da.

LEABURU-TXARAMA

GABON ESKEA

Arratsaldean. Haur eta gazteak kantuan aterako dira.

LIZARTZA

OLENTZERO ETA MARI DOMINGI

18:00. Olentzeroren etorrera Otsolar dantza taldeak lagunduta, ondoren gaitaina errete egongo dira.

ORENDAIN

GABON ESKEA

09:00. Plazan elkartuko dira herritarrek etxez etxe abesten joateko. Ondoren bazkaria egingo dute Eltxo elkartean.

OREXA

GABON ESKEA

Arratsaldean. Herritarrek kantari aterako dira baserriz baserriz.

TOLOSA

OLENTZERO ETA MARI DOMINGI

17:30. Olentzeroren eta Mari Domingiren etorrera, Plaza Zaharretik.

MANIFESTAZIOA

18:45. *Guprest gaude, eta zu?* manifestazioa Triangulotik, Tolosako Sarek deituta.

ZIZURKIL

GABON ESKEA

Goizean. San Millan ikastetxeko umeek baserrietan abestuko dute eta Pedro Mari Otaño eta Zubimusu ikastolako umeek Elbarena auzoa alaituko dute. Ondoren, Urkamendi elkartean hamaiketako.

17:30. Urkamendi aldetik etorriko dira Olentzero eta Mari Domingi Loatzo musika eskolako musikariek lagunduta. Plazan Bukalai dantza taldekoek dantzatu eta Loatzo musika eskolakoez musika joko dute eta herriko haur guztiek Olentzerori muxu emateko aukera izango dute.

IGANDEA ABENDUAK 25

ALEGIA

KONTZERTUA

11:15. Txintxarri Abesbatza kantuan meza nagusian.

ANOETA

KALEJIRA

12:00. Anoetako txistulari taldeak kalejira egingo du.

ASTELEHENA ABENDUAK 26

AMEZKETA

LUDOTEKA

10:00-12:00. *Nur eta herensugearen tenplua* filma kultur etxeko aretoan. Lehen Hezkuntzakoentzat.

16:00-18:00. *Olentzero eta animalia*ren *sekretua* filma kultur etxeko areto

nagusian. Haur Hezkuntzakoentzat izango da honakoa.

ASTEASU

TAILERRA

16:30. Txatxilipurdi taldearekin, euskarazko jostailu berriak ezagutzeko *Probatu eta gozatu* tailerra.

ZINEMA

**JUMANJI:
BIENVENIDOS
A LA JUNGLA**
Ostirala (19:30).
Larunbata (19:30).
**Gurea, Amasa-
Villabona.**



**PADDINGTON 2
FILMA**
Larunbata (17:00).
Tolosa, Leidor.



**PERFECTOS
DESCONOCIDOS**
Larunbata (19:30 eta
22:30). Igandea
(19:30). Astelehena
(19:30 eta 21:30,
ikuslearen eguna)
Tolosa, Leidor.



BON 10+

Zure 20 euroak 30 bilakatzen dira.

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA
TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONTSUMO SAILA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO

EUSKOMER
Euskadiko Merkataritza Konfederazioa
Euzko-merkatariak. Merkatuaren Erakundeak

federación ecomercio fmg

www.bono10.eus

Asteasun aurkitu duten kakalardoa



JOKIN SOROZABAL
HARITUZ-EKO KIDEA

Lehen Atxagaren muskerrarekin bazuten ospe aukera kakalardo bat etorri orain Asteasuko lurrera ta «Rosalia Alpina» hori albiste denen gainera baserritarrak eta artzaiak ia dituzte sobera aizu turista ez badakizu «zubian» nora atera Tolosaldera etor zintezke kakalardoa jatera.



Doinua

Gabon denori ongi etorri

Tradizioak kontraesan

Kontraesanen garaia ate joka: Gabonak. Espiritu batek haurdun utzita, Amabirjinak erditutako profetaren jaio-tzak bazterretan. Udalek herriko txo-koetan jarriak. Eskola-umeek, atez ate, kantuz goraipatuak.

Tradizio zenbaitek kontraesanak adina konplexu sortzen dizkigute. Badute zerbait beti bertan ezagutu iza-nagatik-edo, geure senti-tzen dituguna, baina aldi berean, barruan hazkura sortzen digutena. Eta, hala, adabakiak jartzen ditugu, iraultzeko ausar-diaren faltan, pixka bat geureago edo modernoago sentitu nahian. Inor gai al da Belenera doazenen alboan Olentzerok zer egiten duen azaltzeko? Kixmiren sorreratik biziraun zuen Jentil bakarra omen, basoko ikazkin bakartia, baina egungo eredu «on» guztietara konplexurik gabe moldatu duguna. Errebeldia guztia kendu dio-

gu: ardoa, esku zikinak, tripa, pipa eta bakardadea (emakumea behar zuen alboan, to Mari Domingi).

Tradizioa: Kultura baten funtsezko osagaia, giza-taldeak euren nortasuna eraiki eta beste giza taldeetatik bereiz-teko erabilia. Horixe da tradizioa defi-nizioz. Baina... noiz du talde batek au-rrekoena eraldatzen (edo garatzen) hasteko eskubi-dea? Noiz (eta nola) dese-raikitzen dira tradizioak identitateari eutsiz? Edo noiz da zilegi azken men-de luzeetakoak iraultzea, antzinagokoak direnak berreskuratzeke? Zerga-tik ez dira deuseztatzen inposizioaren bidez erro-tutako sinesmen eta erri-tualak? Tradizioa nortasun eta bereiz-te ikur bada, zergatik ez berreskuratu erlijio garaien aurreko ohiturak, bene-tan identitatea ikur direnak?

P.D.: Bai, akaso gauzak zertxobait aldatu dira, beste garai batean sutan erreko ninduten. Neguko solstizio on!



MADDI SARASOLA
EIZMENDI
BETAURREKO
BERDEEKIN

Inorgai al da Belenera doazenen alboan Olentzerok zer egiten duen azaltzeko?

Barkatuko diot

SONETOA KARLOS LINAZASORO



Ura izotz bihurtzeko zorian
udazkeneko teilatuetan.
Egarri hori da nirea,
ur horrek sortzen dituen osinak.
Ura eskola da,
nire zapaten min jatorrizkoa,
kantu ahantzien dekadentzia.
Begiz jotzen du zirimoletan,
errotan dabilenean musu egiten,
edo zure sexuaren sehaskan
lokartzen denean.

Aberri egin zait orpoetan,
harri, negar, goiaingeru.
Barkatuko diot haurtzarora,
barkatuko diot araztasuna,
barkatuko diot betiko
zauritu ninduen egunsentia.

Bideak

Nire irakasle izandako batek hots egin zidan duela ez asko. Ni ikastolara joatea nahi zuen, unibertsitatean egingo duten bidea aukeratzen ari diren ikasleekin hitz egitera, beste hainbat ikasle ohirekin batera. Gure esperientzia azaldu behar omen genien. Joan nintzen bada, eta eskatuta bezala, kontatu nien handik atera eta gaurdaino egin dudan ibilbidea. Baina askoz ere interesgarriagoa iruditu zitzaidan ondoan neuzkan beste hizlarietartatik, edo kontatu zutena baino gehiago, transmititu zuten mezua.

Ikasle gazteek inoiz baino informazio gehiago dute eskura, eta hala ere, duela 15 urte bezala, presio handia dute karrera bat aukeratzean. Baina bidegurutze horretan, estutzen dituen ez da aukera askoren artean bat hautatu beharra, baizik eta aukeratzeko duten bide hori okerra izateko

beldurra. Une horretan hautua garbi izan arren, gerta litekeelako unibertsitateira iritsi eta ikasketak ez gustatzea, edo bukatutakoan lanik ez izatea.

Horregatik uste dut oso *casting* ego-kia bildu zela mahai-inguruan: bederatziz hizlarietatik, ni bakarrik ari nintzen lanean aukeratutako ikasketen bidetik. Bat dantzari profesionala zen ingeniari-tza egin arren, besteak unibertsitateko ikasketak utzi zituen, modulu bat egin, gero beste karrerara bat hasi, eta geroztik pelikula bat egiteko tartea ere izan du, eta hurrenak gizarte hezkuntza egin zuen irakaskuntzan bukatzeko.

Eta horixe izan zen (edo hala espero dut behintzat) transmititutako mezu nagusia. Bide asko har daitezkeela bizitzan. Eta 18 urterekin hartutako lehena izan litekeela zuzena edo okerra, baina nahi adina denbora dutela norabidea aldatzeko.



IRATI HARTSUAGA
ITZULTZAILEA

Ikasle gazteek inoiz baino informazio gehiago dute eskura, eta hala ere, duela 15 urte bezala, presio handia dute karrera bat aukeratzean

EGURALDIA



OSTIRALA

Eguraldi motel xamarra. Fronte ahul batek hodeitza handia utziko digu eta tarteka, baita ere, euri pixka bat. Botatzen duena euri txiki edo xirimiri moduan botako du. Haizea ipar-mendebaldetik sartuko zaigu eta tenperaturak freskoak

izango dira. Maxi-moak ez dira 10-11 gradutik pasako.



**IKER
IBARLUZEA**
EGURALDI
MUTILA

LARUNBATA

Altxatzera egingo du. Antizikloiak babesa eskaini eta eguraldi polita izango du. Ze-ruan hodei batzuk ikusiko ditugu,

baina inolako ondorioz ekarri gabe eta horren ondorioz egun osoan ateri izango da. Haizea ekialde, ipar-ekialdetik sartuko zaigu eta tenperaturek zertxobait irabaziko dute. Maximak 11-12 gradutan geratuko dira.

IGANDEA

Eguraldi benetan atsegina. Batetik, hego-haizea bueltan izango da eta tenperaturak nabarmen igoko dira, eguneko erdiko orduetan 14-15 gradu epel harrapatzeko, eta bestetik, ze-ruan nahiz eta goi-mailako hodeiren bat ikusiko dugun, eguzkia jaun eta jabe izango da eta eguraldi ederraz gozatzeko aukera izango du.

ASTELEHENA

Eguraldi eguzkitsu eta epelak jarrai-pena izango du. Hego-haizeak berriz ere tenperatura epelak ekarriko dizki-gu, non maximoak berriz ere 14-15 gradutan geratuko diren eta zeruan ere hodei gutxi, nahiz eta, azken orduetan mendebaldetik hodei batzuk sartuko diren. Joerari dagokionez, as-teartetik aurrera eguraldi euritsu, hai-zetsu eta epelak datozela ematen du.

OSTIRALA
22



IGANDEA
24



LARUNBATA
23



ASTELEHENA
25

IRAGARKI
LABURRAK

LANESKAINITZA

Kamioi gidaria. Esperientziadun kamioi gidaria behar du. C+E gidamainenak eta CAP-a duena. Euskaraz jakitea baloratuko da. Interesa duenak deitu 603 770 224 telefono zenbakira.

SALGAI

Etxebizitza. Etxea salgai Amezketako herri erdian. Lur saila, bajera, garajea eta terrazarekin. 120 metro karratu inguru. Interesatuak deitu 617 60 78 14 edo 943 65 12 65 telefono zenbakietara.

• Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu 943 65 56 95 telefono zenbakira, idatzi ataria@ataria.eus helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

FARMAZIAK



ABENDUAK 22, OSTIRALA

TOLOSA

Egunekoa. Bengoetxea Aiestaran, E. Kale Nagusia, 7. Telefonoa: 943 67 06 48.

ABENDUAK 23, LARUNBATA

TOLOSA

Egunekoa. Bronte Posada, C. Korreo kalea, 20. Telefonoa: 943 67 60 13.

ABENDUAK 24, IGANDEA

TOLOSA

Egunekoa. Olarreaga Aranburu, M. Martin J. Iraola etorbidea, 10. Telefonoa: 943 67 24 38.

ABENDUAK 25, ASTELEHENA

TOLOSA

Egunekoa. Morant Barber, R. Zaballarreta lorategiak, 1. Telefonoa: 943 67 38 49.

**EGUNERO GAUEKO
GUARDIAKO FARMAZIA:**
TOLOSA • Morant, R.
Zaballarreta Lorategiak, 1.
Tel.: 943 67 38 49.

ATARIA
IRRATIA

OSTIRALA

09:00. Pasahitza magazina. Eguraldia, Solasaldi politikoa: Kataluniako hauteskundeek utzitako emaitzak aztergai, gurean nahiz Katalunian bertan izango ditugun gonbidatuekin. Alain Rekondorekin zinema eta telesailak, azken ostiraleko tartea, Tolosaldea Garatzen atala eta Tolosako azokari eskaintako tartea.

11:00. Hamaitetako. Gure eskualdeari begirada: Gaurkoan, Alegialdea.

12:00. Entzuteko Jaioak musika saioa.

16:00. Zebrabidea.

18:00. Goizeko saioen onena.

20:00. Kantazgora musika saioa.

LARUNBATA

11:00. Trikiti musika.

14:00. (H)ari naizela. Imanol Artola Felix-ek gidatutako bertso saioa.

16:00. Entzuteko Jaioak.

17:00. Kokondo. Oskar Tenarekin.

18:00. Entzuteko Jaioak.

21:00. Playback Ataria musika saioa.

IGANDEA

11:00. Asteko onena.

16:00. Entzuteko Jaioak.

17:00. Kantazgora musika saioa.

18:00. Entzuteko Jaioak.

107.6 fm
www.ataria.eus

**ZORION
AGURRAK**

943 65 56 95 • ataria@ataria.eus

28 KANALA



OSTIRALA

12:30. 1,2,3 hemen da Miru!

13:30. Gaurkoan Tolosaldeak.

17:30. Gaurkoan Tolosaldeak.

21:30. Gaurkoan Tolosaldeak.

22:00. Ur eta lur.

23:30. Gaurkoan Tolosaldeak.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua



zozketak

Atarikideentzat **bi sarrera** ditugu



ENE KANTAK,
HAURRENTZAKO
IKUSKIZUNA.

Abenduak 27, asteazkena
17:00 • Tolosa, Leidor aretoa.



Zozketetan parte hartzeko **ASTEAZKENA 13:00ak arte: 943 65 56 95** edo www.ataria.eus



harpidedun izateak badu saria saridunak

1 “ARCIMBOLDO. Las floras y la primavera”

Bi lagunentzako bina sarrera
2018-02-05era arte

www.museobilbao.com/eu
BILBO

- Lorea Berasategi Lopetegi (Amezketza)
- Marian Delgado Cano (Anoeta)

Gabon ostean, sarrerak ATARIAren bulegoan jaso behar dituzu.

BILBOKO ARTE
EDERREN MUSEOA
MUSEO DE BELLAS
ARTES DE BILBAO



2 TXURI URDIN irristaketa librea

Bi lagunentzako bina sarrera

- Igor Garmendia Mendizabal (Tolosa)
- Joxepa Murua Artola (Tolosa)

Bi hilabeteko epea saria erabiltzeko. Aurrez deitu behar da.



Anoeta pasealekua, 24 – DONOSTIA
Tel.: 943-46 44 04 www.eltxuri.com

3 SEGORE ETXE BERRI JATETXEA-LANDAETXEA

Bi lagunentzako otordua

- Feli Larreta Mugerza (Tolosa)

www.segore.com
Mota guztietako ospakizunetarako;
ezkontzak, familia bazkariak...
943-58 09 76 – 610 460 751
Santa Maria auzoa – ALBIZTUR

Aurrez deitu behar da jatetxera eta bi hilabeteko epea dago saria erabiltzeko.



%
des
kon
tua
30

EGUZKITAKO
BETAURREKOEN
bilduma BERRI
GUZTIETAN

www.multioplicasgipuzkoa.com

Kontsulta itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak. Ezin da beste eskaintza batzuekin batera erabili.



San Frantzisko, 23 • Tel. 943 69 84 70 • **TOLOSA**

Gure betaurreko
guztiak **2018**
bildumakoak dira

MULTIOPTICAS
lehen azerbitzu optikoetan

AZKEN ETXEBIZITZAK



1ºA : 156.000 € + BEZ
1ºB: 159.000 € + BEZ

AMEZKETA - San Bartolome, 35

2 eta 3 gelako etxebizitza, garaje itxia, trastelekua.



2 gela: 172.000 €tik
3 gela: 200.000 €tik

ANOETA - Itur kalea,1

235.000 € + BEZ aurrea



VILLABONA - Maiatzaren lehen plaza

275.000 € + BEZ aurrea



ALEGIA - Beistin auzoa

155.000 € + BEZ



IRURA - Laskibar auzoa,15

VPO etxebizitzak



155.288,86 € + BEZ
aurrea

ORDIZIA - Filipinak kalea 34-36

Kale Berria, 46 behea. 20150 Villabona
Tf: 943 690 297 - 607 445 484
www.aburuza.com - aburuza@aburuza.com